



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

ALDIZKARI OFIZIALA BOLETÍN OFICIAL

VIII. legegintaldia / VIII legislatura

N.º 164 zk.

2008.07.04 / 04.07.2008

AURKIBIDEA ÍNDICE

LEGEGINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

LEGE PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

- | | | | |
|-----------|---|------------|---|
| 28193 or. | <i>6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txiki<i>ei buruzkoa</i> (Osoko Bilkuraren erabakia)</i> | Pág. 28193 | <i>Ley 6/2008, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi</i> (Acuerdo del Pleno) |
| 28207 or. | <i>7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldatetarena</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28207 | <i>Ley 7/2008, de 25 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Actividad Comercial</i> (Acuerdo del Pleno) |
| 28224 or. | <i>8/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea aldatzekoa</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28224 | <i>Ley 8/2008, de 25 de junio, por la que se modifica la Ley contra la Exclusión Social y la Ley de Carta de Derechos Sociales</i> (Acuerdo del Pleno) |
| 28229 or. | <i>9/2008 Legea, ekainaren 27koa, bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziazio-prozesu bat irekitze<i>ari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren iritzia eskatzeko herri-galdeketa bat deitzeko eta arautzekoa</i> (Osoko Bilkuraren erabakia)</i> | Pág. 28229 | <i>Ley 9/2008, de 27 de junio, de convocatoria y regulación de una consulta popular al objeto de recabar la opinión ciudadana en la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la apertura de un proceso de negociación para alcanzar la paz y la normalización política</i> (Acuerdo del Pleno) |

KONTROL ETA SUSTAPEN POLITIKOA FUNCIÓN DE CONTROL E IMPULSO POLÍTICOS

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENAK PROPOSICIONES NO DE LEY

- | | | | |
|-----------|---|------------|---|
| 28241 or. | <i>Bazterkeria sozialaren lege-proiektua Legebiltzarrera ekartzeari buruz</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28241 | <i>Relativa a la remisión al Parlamento del proyecto de ley sobre la exclusión social</i> (Acuerdo del Pleno) |
| 28241 or. | <i>Euskal herritar guztientzat eta bereziki diru-sarrera txikiak dituztenentzat onuragarria izango den PFEZen erreformari buruz</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28241 | <i>Sobre una reforma del IRPF que beneficie a todos los vascos, especialmente a los que tienen menos ingresos</i> (Acuerdo del Pleno) |
| 28242 or. | <i>Gizarteak hiri handietan duen parte-hartzeari buruz</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28242 | <i>Referente a la participación social en las grandes ciudades</i> (Acuerdo del Pleno) |

MOZIOAK MOCIONES

- | | | | |
|-----------|---|------------|---|
| 28243 or. | <i>Jaurlaritzaren etxebizitza-politikari buruz eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Visesa (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA) sozietatearen promozioetan atzemandako akats larriak konpontzeko hartu behar dituen neurriei buruz</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28243 | <i>Acerca de la política de vivienda del Gobierno y las medidas del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales para dar solución a los graves defectos detectados en promociones de Visesa (Vivienda y Suelo de Euskadi)</i> (Acuerdo del Pleno) |
| 28244 or. | <i>Euskadiko gazteek garraio publikoaz baliatzeko duten irisgarritasunari buruz</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28244 | <i>Relativa a la accesibilidad de la juventud al transporte público</i> (Acuerdo del Pleno) |

EBAZPENAK RESOLUCIONES

- | | | | |
|-----------|---|------------|--|
| 28245 or. | <i>1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertakariei buruz</i> (Osoko Bilkuraren erabakia) | Pág. 28245 | <i>Sobre los hechos ocurridos en Vitoria-Gasteiz el 3 de marzo de 1976</i> (Acuerdo del Pleno) |
|-----------|---|------------|--|

AGERRALDI ESKEAK SOLICITUDES DE COMPARENCIA

- | | | | |
|-----------|--|------------|--|
| 28254 or. | <i>Informatzeko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako sarbidea ematen duten gehieneko diru-sarrerak eguneratzeari buruz</i> | Pág. 28254 | <i>Para informar sobre la actualización de los ingresos máximos para acceder a las viviendas de VPO de régimen general</i> |
| 28255 or. | <i>Informatzeko babes ofizialeko etxebizitzetako prezioa igotzeko duen asmoaz</i> | Pág. 28255 | <i>Para informar sobre su intención de elevar el precio de la VPO</i> |



LEGEGINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

LEGE PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa (Osoko Bilkuraren erabakia)
(08/09.01.00.0023)

2008ko ekainaren 25e an egindako ohiko osoko bilkuran hartu zen erabakia betez, agintzen dut Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila legea.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Izaskun Bilbao Barandica**

NIK, CARMELO BARRIO BAROJAK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

ZIURTATZEN DUT

Eusko Legebiltzarrak, 2008ko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legea onetsi duela, eranstean den testuaren arabera.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2008ko ekainaren 25ean.

Mahaiko lehen idazkaria, Carmelo Barrio Baroja. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Izaskun Bilbao Barandica

ZIURTAGIRIAREN ERANSKINA

6/2008 LEGEA, EKAINAREN 25EKOA, EUSKADIKO KOOPERATIBA SOZIETATE TXIKIEI BURUZKOA

ZIOEN AZALPENA

Azkeneko urteotan, enpresa-ekimen berriak martxan jartzeko beharrezko baldintzak sinplifikatzeko jarrera nagusitzen ari da Europar Batasuneko instituzioetan. Baldintza horiek –dagokion legeriak sozietate mota bakoitzari eskatzen dizkionak– eragina izan dute formalki ezarri nahi izan diren enpresa ia guztien sorreran. Nolanahi ere, enpresa ertainek, eta batez ere enpresa txikiek, oztopo administratibo moduan ikusten dituzte sozietate forma bakoitza eratzeke baldintza horiek. Izan ere, ez dira baldintza lagungarriak; aldearantz, eragozpenak eragiten dituzte, batez ere mikro-enpresei, eta batzuetan oztopo gaindiezinak izaten dira gainera, enpresa horien izaera eta inguruabarrak dirrela-eta, formalki gauzatu ahal izateko.

Ley 6/2008, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi (Acuerdo del Pleno)
(08/09.01.00.0023)

En ejecución del acuerdo adoptado por el pleno ordinario celebrado el día 25 de junio de 2008, se ordena la publicación de la ley en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Izaskun Bilbao Barandica**

CARMELO BARRIO BAROJA, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

CERTIFICO

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 25 de junio de 2008, ha aprobado la Ley 6/2008, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi, con arreglo al texto del anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de 2008.

El secretario primero de la Mesa, Carmelo Barrio Baroja. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Izaskun Bilbao Barandica

ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

LEY 6/2008, DE 25 DE JUNIO, DE LA SOCIEDAD COOPERATIVA PEQUEÑA DE EUSKADI

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos años se ha experimentado en el seno de las instituciones de la Unión Europea una progresiva sensibilización hacia la adopción de diversas iniciativas orientadas a favorecer la simplificación de los condicionantes precisos para la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales. Estas exigencias, que la legislación correspondiente a cada tipo societario requiere, han venido incidiendo en la creación de la práctica totalidad de las empresas cuya implantación formal se ha pretendido. No obstante, son las empresas medianas, y particularmente las pequeñas, las que perciben los requisitos para la constitución de cada forma societaria como obstáculos de índole administrativa que no sólo no facilitan, sino que, en el caso de las microempresas especialmente,

Egoera horren aurrean, merkataritza alorrean lege-aldaketak ekarri dituzten Estatuko nahiz Europar Batasuneko erakundeen nahia izan da bultzatzen diren arau-aldaketak ez izatea, soil-soilik, oztopo administratiboak kentzeko, enpresa berriak sortzeko eragozpen direla ikusita; horrez gain, eta nagusiki, arau-aldaketa horiek enpresa txiki eta ertainak sortzeko lagungarri izatea nahi izan da, enpresa horietan direlako lanpostu berriak sortzen dituztenak.

Kooperatiben mundua ezin da aldaketa horietatik guztietatik at geratu. Baina, horrez gain, esparru horretan aldaketak ahalik eta azkarren aplikatu behar dira, kooperatiba txikien ekintzailetza bultzatuko duen dinamika sortzeko. Izan ere, kooperatibak enplegusortzaile dira; kalitateko enplegua sortzen dute, eta, autogestio formulak erabiliz gainera, horixe baitute bereizgarri nagusia gainerako enpresen aldean.

Horregatik, egokitzat jo da Euskadiko kooperatiben eremuan beharrezko moldaketak egitea, enpresak sortzeko baldintzak hobetu eta soiltzeko 1997ko apirilaren 22ko Gomendioan (97/344/EEE) zehaztutako helburuak betetzen laguntzeko. Gomendio hura inflexio-puntu garrantzitsua izan zen, Europar Batasuneko estatu kideak enpresa txiki berriak sortu beharraz ohartarazi baitzuten, eta enpresa berriak sortzeko zenbait baldintza eta betekizun aldatu beharraz, hala nola zenbait eskakizun sinplifikatzea eta enpresen sorreraren hasiera-faseko izapide batzuk sinplifikatzea. Halaber, geroagoko ekimen batzuei ere bide eman zien; adibidez, Europako Batzordeak enpresa-ingurunea sinplifikatzeko talde operatiboa (BEST taldea) sortu zuen, 1997ko Amsterdamgo Kontseilu Europarraren aginduz. Taldeak eginiko lanaren ondorioz, enpresa-espirtua eta lehiakortasuna sustatzeko ekintza-plana (BEST ekintza-plana) onartu zen 1999ko apirilean, eta horretan 1997ko gomendioan jasotako iradokizunak berresten ziren.

Ondoren, 2000ko martxoan, Lisboako Kontseilu Europarrak egin beharreko lantzat jo zuen enpresa berritzaileen sorkuntza eta garapena bultzatzeko lagungarri izango den ingurua sortzea, bereziki enpresa txiki eta ertainei begira.

Lisboako Kontseilu Europarrak aginduta, 2000ko ekainean, Enpresa Txikien Europako Gutuna (Feirako Gutuna) onartu zuten estatu kideek, eta, horren bidez, enpresen jarduerari laguntzeko marko juridiko eta administratibo egoki bat sortzeko konpromisoa hartu zuten, modu merkeagoa eta azkarragoa martxan jarrita enpresa-jarduera bultzatuko duena;

constituyen un escollo, en ocasiones insalvable dada su naturaleza y circunstancias, para su plasmación formal.

Ante esta situación, desde las instancias comunitarias y estatales que han culminado modificaciones legislativas en el ámbito mercantil se ha pretendido que los cambios normativos que se propugnan no sólo sirvan para la remoción de los obstáculos administrativos que ralentizan la constitución de nuevas empresas, sino que, principalmente, su incidencia se ponga de manifiesto en la creación de las pequeñas y medianas empresas, que son fundamentales en la aparición de nuevos puestos de trabajo.

El mundo cooperativo no sólo no puede ser ajeno a los cambios expuestos, sino que constituye un ámbito al que deben trasladarse sin más dilación las modificaciones que, desde la óptica aludida, propicien la creación de una dinámica que favorezca el emprendizaje de las pequeñas cooperativas en su condición de agentes creadores de más empleo, empleo de más calidad y, como sello diferenciador de las empresas que surgen en este ámbito, bajo fórmulas de autogestión.

Por ello se estima oportuno realizar las correspondientes adaptaciones en el ámbito de las cooperativas de Euskadi, de forma que se pueda facilitar la consecución de los objetivos perseguidos en la Recomendación sobre la mejora y simplificación de las condiciones para la creación de empresas, de 22 de abril de 1997 (97/344/CEE). Dicha recomendación supuso un importante punto de inflexión, al insistir a los estados miembros sobre la necesidad de crear nuevas pequeñas empresas y, para ese fin, modificar determinadas condiciones y requisitos relativos a su constitución, simplificando ciertas exigencias y algunos trámites referentes a la fase inicial de creación de las empresas, y dio lugar a otras iniciativas posteriores como la creación por la Comisión Europea, por mandato del Consejo Europeo de Ámsterdam de 1997, del grupo operativo para la simplificación del entorno empresarial (grupo BEST). Los trabajos del grupo se materializaron en la aprobación, en abril de 1999, del plan de acción para promover el espíritu empresarial y la competitividad (plan de acción BEST), que reiteró las sugerencias incluidas en la recomendación de 1997.

Posteriormente, en marzo de 2000, el Consejo Europeo de Lisboa identificó como una de las tareas a llevar a cabo la formación de un entorno que facilite la creación y desarrollo de empresas innovadoras, en particular de pymes.

En la Carta Europea de la Pequeña Empresa (Carta de Feira), adoptada en junio de 2000 por mandato del Consejo Europeo de Lisboa, los estados miembros se comprometieron a forjar un marco jurídico y administrativo que propicie la actividad empresarial a través de una puesta en marcha menos costosa y más rápida, ampliándose las posibilidades de inscripción.

besteak beste, erregistroetan online inskribatzeko aukera eman zitzaizen enpresei.

Feirako Gutuna da enpresa txiki eta ertainen aldeko jardun-eremu politikoa Europan, eta gutuna gauzatzeko, enpresaren eta enpresa-espírituaren alde, bereziki enpresa txiki eta ertainen alde, lan egiteko urte anitzeko programa onartu zuen Kontseiluak, 2001-2005 urteetarako. Hain zuzen, programaren helburuetako bat enpresen marko administratibo eta arautzailea sinplifikatzea da, enpresak sortzen laguntzeko.

2002ko udaberriko gailurra prestatzeko lanen artean, Lisboako prozesuaren barruan eta jarraitu beharreko bidea zehaztu nahian, 2002ko otsailean, Europako Parlamentuak, enplegu bete eta gizarteratzea lortzeko estrategiari buruzko 2002/0079 Ebazpenaren bitartez, dei egin zien estatu kideei formulario estandarren erabilera bultzatzeko, eta, orobat, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili zitezkeen administrazio publikoen arteko harremanetan, batez ere enpresak ezarri, erregistratu eta haien sorrerari buruzko publikitate egiteko prozeduretan, Feirako Gutunak agindutakoa bete beharrez.

2002ko otsailean, enpresa txiki eta ertainen inguruko Europar Ministroen Konferentziak, Aranjuez bilduta, sozietate-formula soilak ezarri behar direla azpimarratu zuen, enpresa txikien errealitatera hobeto egokitzen diren formulak. Horrez gain, adierazi bezala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak are gehiago erabili behar direla azpimarratu zuten.

Azkenik, Bartzelonako Kontseilu Europarrak konpromiso horiek berak berritu eta berretsi zituen, eta azpimarratu zuen inguru egokiagoa eta hobea sortu behar dela, enpresa txiki eta ertainen errealitatera hobeto moldatuko dena.

Halaber, COM (2003) 27 dokumentuan oinarrituta prestatutako "Enpresa Espiritua Europan" liburu berdean aitortzen denez, orokorrean araudian ez da bereizketarik egiten enpresen artean, neurria kontuan hartuta, eta, horren ondorioz, arauan ezartzen diren eskakizunak betetzea oso zail egiten zaie enpresa txikienei. Gainera, gomendatzen da agintari publikoek "lehenik eta behin, txikia" printzipioa eduki behar luketela gogoan, hau da, araudia sinplifikatu eta egokitu behar luketela, ahalik eta gehiena molda dadin enpresa txikien izaerara eta ezaugarrietara. Bestalde, karga administratiboak murrizte aldera, estatu kide batzuek salbuespenak ezarri dituzte enpresa txiki eta ertainentzat, edo administrazio-zerbitzu osagarriak eskaini dizkiete laguntzeko. Izan ere, informazioa eta babesa oso lagungarri izan daitezke enpresa arloan dabilentzat, administrazio-izapideak betetzeko orduan.

Kapital-sozietateen eremuan, Enpresa Txikien Europako Gutunak hartutako konpromisoak betetzeko helburuz, Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko martxoaren 23ko 2/1995 Legea aldatzen duen En-

ción, en línea, en los registros.

La Carta de Feira es el marco político europeo de actuación a favor de las pymes, y, para su ejecución, el Consejo aprobó el programa plurianual a favor de la empresa y el espíritu empresarial, en particular para las pymes, vigente para el periodo 2001-2005. Precisamente, uno de los objetivos del programa es simplificar y mejorar el marco administrativo y reglamentario de las empresas para favorecer su creación.

En febrero de 2002, el Parlamento Europeo, mediante la Resolución 2002/0079, sobre la estrategia para el pleno empleo y la inclusión social en el marco de la preparación de la cumbre de primavera de 2002, el proceso de Lisboa y el camino que se va a seguir, urgió a los estados miembros a apoyar el uso de formularios estándar, así como el uso intensivo de las tecnologías de la información y las comunicaciones en los intercambios con las administraciones públicas, especialmente en los procedimientos de establecimiento, registro y publicidad de la creación de empresas en consonancia con la Carta de Feira.

En febrero de 2002, la Conferencia de Ministros Europeos de pymes, celebrada en Aranjuez, insistió en la necesidad de establecer fórmulas societarias sencillas y mejor adaptadas a la realidad de las empresas más pequeñas. Asimismo, como se ha apuntado, se incidió en la necesidad de hacer un mayor uso de las tecnologías de la información y de las comunicaciones.

Finalmente, el Consejo Europeo de Barcelona renovó y reforzó estos compromisos, insistiendo en la necesidad de crear un entorno favorable, mejor y más adaptado a la realidad de las pymes.

Asimismo, en el libro verde "El Espíritu Empresarial en Europa", basado en COM (2003) 27, se reconoce que en general la normativa no da un tratamiento diferenciado a las empresas en función de sus dimensiones, por lo que el cumplimiento de sus exigencias por parte de las más pequeñas es un obstáculo muy difícil de superar. Igualmente, recomienda que las autoridades públicas apliquen el principio de "pensar primero en lo pequeño", simplificando la reglamentación y adecuándola tanto como sea posible a la naturaleza y características de estas empresas de menor tamaño. Por otra parte, para reducir las cargas administrativas, algunos estados miembros han establecido exenciones para las pymes o les ofrecen servicios administrativos de apoyo. La información y el apoyo pueden ayudar a las personas empresarias a cumplir los trámites administrativos.

En el ámbito de las sociedades de capital, para el cumplimiento de los compromisos de la Carta Europea de la Pequeña Empresa se aprobó la Ley 7/2003, de 1 de abril, de la sociedad limitada Nueva Empresa



presa Berria sozietate mugatuari buruzko apirilaren 1eko 7/2003 Legea onartu zen. Lege horretan, merkataritzako nahiz administrazio arloko marko arautzaile berezia ezarri nahi da, hain justu enpresa txiki eta ertain enpresa-jarduera sustatuko duena eta merkatu leku lehiakorragoa emango diona.

Halaber, 1332/2006 Errege Dekretuak, azaroaren 21ekoak, erantzukizun mugatuko sozietateak izapidetze telematikoen bidez eratzeko eta martxan jartzeko dokumentu elektronikoa bakarria (DEB) erabili ahal izateko zehaztapenak eta baldintzak arautzen ditu, eta dekretu horren bidez aukera ematen zaie sozietate horiei sistema telematikoa erabiltzeko. Izan ere, dekretu hori indarrean sartu arte, soilik Enpresa Berria sozietate mugatua sortzeko erabil zitekeen.

Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibentzat, berriz, orain arte ez zegoen inongo marko juridiko egokirik, aurrez aipatutako gomendio eta konpromisoak betetzeko bidea emango zuenik. Hortaz, araudi berri honen bidez, arlo horretan laguntza eman nahi zaie lan elkartuko kooperatiba txikienei, hau da, gehenez ere hamar bazkide langile dituzten kooperatibe, egin beharreko egokitzapenak eginda.

Lege honek sei kapitulu, bost xedapen gehigarri eta bi azken xedapen ditu.

I. XEDAPEN OROKORRAK

Alde batetik, kooperatiba-sozietate txikiek guxtienez zenbat iraupen mugagabeko bazkide langile eta lan-bazkide izan behar dituzten finkatzen da: guxtienez, bi. Bestetik, lan elkartuko eta erkidegoan ustiatzeko kooperatiba-sozietate txiki gisa eratzeko eta inskribatzeko izapideak sinplifikatzen dira.

II. BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK EDO IRAUPEN MUGATUKO BAZKIDE LANGILEAK EDO LAN BAZKIDEAK KONTRATATZEKO MUGAK

Besteren konturako langileak eta iraupen mugatuko bazkide langileak kontratatze erregimen bereziari dagokionez, bost urteko epea finkatu da kontrataziorako, epe hori egoki eta nahikotzat jotzen baita kooperatiba-sozietate txikia sendotu eta finkatzeko. Neurri horiek aukera emango diete kooperatiba txikiei merkatu lehiakor izateko eta orain arteko mugaketatik aske jarduteko.

Horrez gain, mugatu egiten dira hasierako derri gorrezko ekarpenak ere, besteren konturako langileak iraupen mugagabeko bazkide langile moduan edo iraupen mugatuko bazkide moduan sartzen direnako.

por la que se modifica la Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada. En ella se pretende establecer un marco normativo mercantil y administrativo capaz de estimular la actividad empresarial y mejorar la posición competitiva de las pequeñas y medianas empresas en el mercado.

Asimismo, mediante el Real Decreto 1332/2006, de 21 de noviembre, por el que se regulan las especificaciones y condiciones para el empleo del documento único electrónico (DUE) para la constitución y puesta en marcha de sociedades de responsabilidad limitada mediante el sistema de tramitación telemática, se posibilita a las citadas sociedades la utilización del referenciado sistema, que hasta su entrada en vigor sólo se podía utilizar para la sociedad limitada Nueva Empresa.

En cambio, hasta la fecha, para las cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco no se había establecido el marco jurídico que posibilitara el cumplimiento de las recomendaciones y compromisos aludidos con anterioridad. Con esta norma se pretende dar respuesta, en dicho ámbito, a las cooperativas de trabajo asociado de menores dimensiones, esto es, a aquellas que no superen el número de diez personas socias trabajadoras, con las correspondientes adaptaciones.

La presente ley consta de seis capítulos, cinco disposiciones adicionales y dos disposiciones finales.

I. DISPOSICIONES GENERALES

Se delimita, por un lado, el número mínimo de personas socias trabajadoras y socias de trabajo de duración indefinida, que se fija en dos, y, por otro, se aborda la simplificación de los trámites para su constitución e inscripción como sociedad cooperativa pequeña de la clase de cooperativa de trabajo asociado y de explotación comunitaria.

II. LÍMITES A LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS TRABAJADORAS POR CUENTA AJENA Y DE PERSONAS SOCIAS TRABAJADORAS O DE TRABAJO DE DURACIÓN DETERMINADA

En cuanto al régimen especial para la contratación de personas trabajadoras por cuenta ajena y de personas socias trabajadoras de duración determinada, se fija una limitación temporal de cinco años, al ser considerado este plazo adecuado para la consolidación de la sociedad cooperativa pequeña. Estas medidas van a posibilitar a dichas entidades actuar en el mercado de forma competitiva y sin las vigentes limitaciones.

Asimismo, se establecen límites a la determinación de las aportaciones obligatorias iniciales para aquellas personas trabajadoras por cuenta ajena que se incorporen como personas socias trabajadoras indefinidas o socias de duración determinada.



III. KOOPERATIBA TXIKIKO ORGANOA

Kooperatiba txikiko organoak Batzar Nagusia eta administrazio- eta ordezkaritza-organoa izango dira. Batzar Nagusia izango da organo garrantzitsuena, eta administrazio- eta ordezkaritza-organoa honelakoa izan daiteke: pertsona bakarrekoa –administratzaile bakarra–, pluripertsonala –administratzaile solidarioak edo mankomunatuak– edo kolegiatua –Kontseilu Errektorea–, gutxienez bi bazkide langile edo lan-bazkide izango dituen betiere.

Kontseilu Errektoreak bi kide baino ez baditu, bertako lehendakariaren botoak ahalmena izango du berdinketak erabakitzeke, kooperatiba-sozietate txikiaren estatutu sozialetan hala ezarrita badago.

IV. ARAUBIDE EKONOMIKOA

Estatutuetan arautuko da egin beharreko ekarpenen gaineko dedukzioak ezarri ala ez. Itzulkinen kapitalizazioek ez dute dedukziorik izango.

V. EGOKITZEARI ETA DESEGITEARI BURUZKO XEDAPENAK

Behar diren konponbideak aurreikusi eta jartzen dira kooperatiba-sozietate txikietako bazkide-kopurua dela-eta gerta daitezkeen bi kasuetarako, betiere lege honen babesean eratzen diren kooperatiba-sozietate txikien kasurako eta Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen babesean eratutako kooperatiba-sozietateen kasurako. Alegia, lehenengo kasuan, kopurua gaintzea, eta hamar bazkide langile edo lan-bazkide baino gehiago egotea; halakoetan, kooperatiba-sozietate txikiak estatutu sozialak egokitu beharko ditu, legeak esaten duenera moldatzeko. Bigarren kasuan, aurreko araudiaren babesean eratutako kooperatiba-sozietateek –balidin eta lege honek kooperatiba-sozietate txikientzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte– aukera izango dute kooperatiba-sozietate txiki gisa egituratzeko.

Halaber, sozietatea desegiteko kausa izango dira kooperatiba-sozietate txikia eratzeko legeak ezartzen duen minimotik behera gutxitzea bazkide-kopurua, kooperatiba txikiko organoak geldirik edo jardun gabe egotea edo justifikaziorik gabe kooperatiba-jarduna etetea, betiere aldi jakin batez luzatzen badira gertakari horiek.

VI. URTEKO KONTU GORDAILUEI ETA KONTU IKUSKATZEARI BURUZKO XEDAPENAK

Kontu ikuskatzeari buruzko Legean jasotzen diren ka-suez gain, lege honetan beste zenbait kasu ere aurreikusten dira, eta, halakorik gertatuz gero, kooperatiba-sozietate txikiek kontuak ikuskatu beharko dituzte.

III. ÓRGANOS SOCIALES

Se establecen como tales la Asamblea General, que será el órgano más importante, y el órgano de administración y representación, que puede ser unipersonal –persona administradora única–, pluripersonal –personas administradoras solidarias o mancomunadas– o colegiado –Consejo Rector–, integrado siempre, como mínimo, por dos personas socias trabajadoras o de trabajo.

En el caso de que el Consejo Rector se encuentre integrado por sólo dos personas consejeras, se posibilita que el voto del presidente o presidenta del Consejo Rector dirima los empates cuando así se establezca por los Estatutos sociales de la sociedad cooperativa pequeña.

IV. RÉGIMEN ECONÓMICO

Se deja a la regulación estatutaria el establecimiento de deducciones sobre las aportaciones obligatorias, excluyendo las capitalizaciones de los retornos.

V. DISPOSICIONES REFERIDAS A LA ADAPTACIÓN Y DISOLUCIÓN

Se contemplan y se arbitran las correspondientes soluciones para los dos casos que se pueden producir en relación con el número de personas socias de las sociedades cooperativas pequeñas que se constituyan al amparo de esta ley y de las sociedades cooperativas constituidas conforme a las prescripciones de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi. Es decir, que, en el primer caso, se supere el número de diez personas socias trabajadoras o socias de trabajo, en cuyo caso la sociedad cooperativa pequeña deberá adaptar sus Estatutos sociales a lo previsto en la ley para las restantes cooperativas; y que, en el segundo supuesto, aquellas sociedades cooperativas constituidas al amparo de la normativa anterior que reúnan los requisitos exigidos para las sociedades cooperativas pequeñas en esta ley podrán adoptar la forma de sociedad cooperativa pequeña.

Igualmente, se consideran causas de disolución la reducción del número de personas socias por debajo del límite mínimo legalmente necesario para constituir la sociedad cooperativa pequeña, la paralización o inactividad de los órganos sociales o la interrupción sin causa justificada de la actividad cooperativa, si se mantienen durante un periodo de tiempo determinado.

VI. DISPOSICIONES REFERIDAS AL DEPÓSITO DE CUENTAS ANUALES Y A LA AUDITORÍA DE CUENTAS

Además de los supuestos que se recogen en la Ley de Auditoría de Cuentas, en esta ley se contemplan determinadas situaciones en las que la sociedad cooperativa pequeña deberá auditar sus cuentas.

VII. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Aurreneko hiru xedapen gehigarrietan honako hauek ezartzen dira, hurrenez hurren: lehenengoan, kooperatiba-sozietate txikiaren dokumentu elektronikoa bakar (KSTDEB) egitea eta dokumentu bakar horrek hobeto funtzionatzeko lagungarri izan daitezkeen instituzio, administrazio eta sozietateekin egin beharreko lankidetzak-hitzarmenak egitea; bigarrenean, Euskadiko kooperatiba-sozietate txikien aholkularitzarako eta hasierako izapideetarako guneak (EKSTAHIG) martxan jartzea, eta, hirugarrenean, kooperatiba txiki berrien zako estatutu sozialen ereduak prestatzea.

Laugarren xedapen gehigarrian, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen aldaketa bat egiten da, interes publikoko helburuetarako baliabideen izaera argitzeko. Horretarako, haien izena eta helburuak berrikusi dira, nahitaezko baliabideak direla azpimarratuz. Gainera, egindako aldaketetan, haien benetako izaerari hobeto egokitzen zaion izen berria sartu da; kooperatiben errealitate soziala eta helburuen interes publikoko izaera uztartzen saiatuz, baliabideen helburuak berrikusi dira; eta kudeaketaren ezaugarriak eguneratu dira araudi berrira egokitzeko.

Bosgarren xedapen gehigarrian, kooperatiba arloko arau-hauste baten tipifikazioa egin eta dagoen zehapena adierazten da, kooperatibaren forma juridiko hau arau honetan aurreikusitakoez bestelako helburu batzuetarako tresna gisa erabiltzen den kasurako.

Horretarako, lege honen garapenean neurri zehatz batzuk ezarriko dira: alde batetik, nabarmen laburtzea ebazpenak emateko epeak eta kooperatiba-sozietate txikien erate-ekriturak inskribatzeko epeak; eta, bestetik, inskribatzeko baldintzen balorazio berria egin eta ondorioak ateratzea, lege-aldaketa honen bidez lortu nahi diren helburuekin adosago egon daitezkeen eta kooperatiba txikien baldintza berezietara hobeto egoki daitezkeen.

Azken xedapenetan, legea indarrean jartzeko baldintzak zehazten dira, eta Eusko Jaurlaritzak legea aplikatu eta garatzeko zein ahalmen dituen zehazten da.

Hala, beraz, neurri hauen bidez, erraztasunak eta bultzada eman nahi zaizkie kooperatiba-sozietate txikiari, ezinbesteko ernamuina baitira Euskadiko kooperatibismoa gara dadin, etorkizuna izan dezan eta indar dadin. Eratzeko prozedura sinplifikatu egingo da, bai eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharreko egintza nagusiak ere, eta sozietateok topatzen dituzten oztopo handienak ezabatu egingo dira; hala, Europar Batasunak emandako gomendioetako bat gauzatu egingo da.

VII. DISPOSICIONES ADICIONALES

Las tres primeras disposiciones adicionales establecen, respectivamente, la elaboración del documento único electrónico de la sociedad cooperativa pequeña (DUESCP) y de los convenios de colaboración con las instituciones, administraciones y sociedades que puedan colaborar para su mejor funcionamiento; la puesta en marcha de los puntos de asesoramiento e inicio de tramitación de las sociedades cooperativas pequeñas de Euskadi (PAITSCPE) y la elaboración de modelos de Estatutos sociales para la constitución de nuevas cooperativas pequeñas.

La disposición adicional cuarta establece una modificación de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, en el sentido de clarificar la naturaleza de los recursos destinados a finalidades de interés público. Para ello, se han revisado su denominación y sus finalidades, subrayando su carácter obligatorio. Además, las modificaciones introducidas incorporan una nueva denominación que se ajusta mejor a su verdadera naturaleza; se han revisado sus finalidades tratando de compaginar la realidad social cooperativa con el carácter de interés público de dichas finalidades, y se han actualizado las características de su gestión a la nueva regulación.

La disposición adicional quinta incluye la tipificación de una infracción en materia de cooperativas, con su correspondiente sanción, en el supuesto de la utilización instrumental de esta forma jurídica para fines distintos a los previstos en esta norma.

A tal fin, en el desarrollo de esta ley se dispondrán las medidas concretas que supongan, en particular, la reducción significativa de los plazos de resolución e inscripción de las escrituras de constitución de las sociedades cooperativas pequeñas, por un lado, y el resultado de una nueva valoración de los requisitos de inscripción que permita una mayor congruencia con los fines que mediante la presente modificación legislativa se pretende alcanzar y su adaptación a las circunstancias particulares de las cooperativas de menor tamaño, por otro lado.

Las disposiciones finales fijan las condiciones de entrada en vigor de la ley y la potestad del Gobierno Vasco para promulgar normas para la aplicación y desarrollo de la ley.

Así pues, con estas medidas se trata de favorecer y fomentar las sociedades cooperativas pequeñas, embrión fundamental para el desarrollo, futuro y consolidación del cooperativismo vasco, simplificando su constitución y sus principales actos inscribibles en el Registro de Cooperativas de Euskadi y eliminando los principales obstáculos con los que se encuentran dichas entidades. Se materializa, de esta forma, una recomendación de la Unión Europea.



Lege hau 10.23 artikulua bidez Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dion eskumen eskusiboaren barruan aldarrikatzen da; eskumen hori, halaber, Konstituzio Auzitegiak berak ere berretsi du (72/83 epaia, hirugarren oinarri juridikoa).

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Kontzeptua

1. Kooperatiba-sozietate txikia lehen graduko kooperatiba-sozietatea da, lan elkartukoa edo erkidegoan ustiatzekoa, eta bere araubide juridikoa lege honek berak arautzen du, kooperatiba sozietateen barruko espezialitate gisan.
2. Kooperatiba-sozietate txikia eratzeko, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen arabera eraturako kooperatiba-sozietatearen estatutu sozialak lege honetara egokitzeko, edo kooperatiba ez den sozietate bat kooperatiba-sozietate txiki bihurtzeko, horiek guztiak egin ahal izateko, sustatzaileek edota dagokion kooperatiba-organoak espresuki adierazi beharko dute kooperatiba-sozietate txikiaren izaera egotzi diotela beren sozietateari.
3. Kooperatiba-sozietate txikia iraupen mugagabeko bazkide langileek edo lan-bazkideek osatuko dute, gutxienez bik eta gehienez hamarrek.
4. Kooperatiba-sozietate txikiak lege honen bidez eta bere garapen-arauen bidez arautuko dira, eta, osagarri behar izanez gero, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen bidez eta bere garapen-arauen bidez.

2. artikulua. Eratzea

1. Kooperatiba-sozietate txikia eratzeko, beharrezkoa izango da eskritura publikoa egitea eta sozietatea Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzea. Inskripzio horren ondoren eskuratuko du izaera juridikoa kooperatiba-sozietate txikiak.
2. Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatiba-sozietate txikiak inskribatzeko liburu edukiko dute, eta hor inskribatuko dira kooperatiba-sozietate txikiaren izaera hartu duten sozietateak, haien jatorrizko forma juridikoa edozein izanda ere.
3. Kooperatiba-sozietate txikien eratze-eskiriturak, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 12. artikuluko beste baldintza guztiak betetzeaz gainera, eredu orientagarri

La presente ley se promulga, dentro del marco de la competencia exclusiva que en materia de cooperativas tiene atribuida por el artículo 10.23 del Estatuto de Autonomía la Comunidad Autónoma del País Vasco, competencia que, asimismo, ha sido refrendada por el Tribunal Constitucional (STC 72/83, fundamento jurídico tercero).

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Concepto

1. La sociedad cooperativa pequeña es aquella sociedad cooperativa de primer grado perteneciente a la clase de las de trabajo asociado o de explotación comunitaria cuyo régimen jurídico se regula en virtud de la presente ley como especialidad de la sociedad cooperativa.
2. La constitución de una sociedad cooperativa pequeña, la adaptación de los Estatutos sociales de una sociedad cooperativa constituida conforme a la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, a lo dispuesto en esta ley o la transformación de una sociedad no cooperativa en una sociedad cooperativa pequeña requerirá la expresa atribución por parte de las personas promotoras o del órgano social correspondiente de la cualidad de sociedad cooperativa pequeña.
3. La sociedad cooperativa pequeña estará integrada por un mínimo de dos y un máximo de diez personas socias trabajadoras o socias de trabajo de duración indefinida.
4. Las sociedades cooperativas pequeñas se regularán por lo dispuesto en esta ley y sus normas de desarrollo, y, supletoriamente, por la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, y sus normas de desarrollo.

Artículo 2. Constitución

1. La constitución de la sociedad cooperativa pequeña requerirá escritura pública e inscripción en el Registro de Cooperativas de Euskadi. En virtud de su inscripción adquirirá la sociedad cooperativa pequeña su personalidad jurídica.
2. En el Registro de Cooperativas de Euskadi se llevará un libro de inscripción de sociedades cooperativas pequeñas en el que se inscribirán aquellas sociedades que hubieran adquirido la condición de sociedad cooperativa pequeña, con independencia de la forma jurídica originaria.
3. La escritura de constitución de la sociedad cooperativa pequeña, además de reunir los restantes extremos a que se refiere el artículo 12 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Co-

bati jarraituz idatzitako estatutu sozialak ere jaso behar ditu.

4. Eratze-eskrituraren eta estatutu sozialen kalifikazioa eta inskripzioa egiteko epea hogeita hamar egunekoa izango da gehienez ere, eskabidea aurkezten denetik kontatzen hasita.
5. Entitate hauen izenean ezinbestean agertuko da "Kooperatiba Sozietate Txikia" adierazpena edo "Koop. Elk. Txikia" laburdura.

II. KAPITULUA

BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK EDOTA IRAUPEN MUGATUKO BAZKIDE LANGILEAK EDO LAN BAZKIDEAK KONTRATATZEA ETA HASIERAKO DERRIGORREZKO EKARPENAK MUGATZEA

3. artikulua. Besteren konturako langileak edota iraupen mugatuko bazkide langileak edo lan-bazkideak kontratatzeko mugak

1. Kooperatiba-sozietate txikiek, erutzen direnetik kontatzen hasita bost urteko epean gehienez ere, aukera izango dute besteren konturako langileak kontratatzeko, edozein modalitatetan, eta iraupen mugatuko bazkide langileak edo lan-bazkideak kontratatzeko ere bai. Edonola ere, kontratatutako langile horiek iraupen mugagabeko bazkide langileak beste izango dira gehienez ere, lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak.
2. Nolanahi ere, kooperatiba-sozietate txikiak ezingo ditu besteren konturako bost langile baino gehiago kontratatu.
3. Eratu eta hurrengo bost urteen barruan, kooperatiba-sozietate txikiak aukera izango dute gehienez besteren konturako bost langile kontratatzeko edo gehienez iraupen mugatuko bost bazkide langile edo lan-bazkide kontratatzeko, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako; betiere, baldin eta iraupen mugagabeko bost bazkide langile edo bost lan-bazkide edo gutxiago badituzte, lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak.
4. Aurreko paragrafoetan aipatzen den bost urteko epe hori amaitzean, kooperatiba-sozietate txikiak besteren konturako langileak eta iraupen mugatuko bazkide langileak edo lan-bazkideak kontratatzeko mugak Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legean ezarritako daude izango dira.
5. Aurreko paragrafoetako kasuak gertatuz gero, sozietatea eratu zenetik bost urteko epea amai-

perativas de Euskadi, deberá contener los Estatutos sociales según un modelo orientativo.

4. El plazo de calificación e inscripción de la escritura de constitución y de los Estatutos sociales no deberá ser superior a los treinta días, a contar desde la presentación de la solicitud.
5. La denominación de estas entidades incluirá necesariamente la expresión "Sociedad Cooperativa Pequeña" o su abreviatura "S. Coop. Pequeña".

CAPÍTULO II

DE LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS TRABAJADORAS POR CUENTA AJENA Y DE PERSONAS SOCIAS TRABAJADORAS O SOCIAS DE TRABAJO DE DURACIÓN DETERMINADA Y DE LA DELIMITACIÓN DE LAS APORTACIONES OBLIGATORIAS INICIALES

Artículo 3. Límites a la contratación de personas trabajadoras por cuenta ajena y de personas socias trabajadoras o socias de trabajo de duración determinada

1. Las sociedades cooperativas pequeñas, durante un plazo máximo de cinco años a contar desde la fecha de su constitución, podrán contratar personas trabajadoras por cuenta ajena en cualquiera de sus modalidades y personas socias trabajadoras o socias de trabajo de duración determinada, en un número que en conjunto no sea superior al de aquellas personas socias trabajadoras de duración indefinida, a jornada completa o a tiempo parcial.
2. En cualquier caso, el número de personas trabajadoras por cuenta ajena a contratar por la sociedad cooperativa pequeña no podrá exceder de cinco.
3. Durante el plazo máximo de cinco años a contar desde la fecha de su constitución, las sociedades cooperativas pequeñas con cinco o menos de cinco personas socias trabajadoras o socias de trabajo de duración indefinida, lo sean a jornada completa o a tiempo parcial, podrán contratar hasta cinco personas trabajadoras por cuenta ajena y hasta cinco personas socias trabajadoras o de trabajo de duración determinada, sea a jornada completa o a tiempo parcial.
4. Transcurridos los cinco años a los que se alude en los apartados precedentes, los límites a la contratación de personas trabajadoras por cuenta ajena y personas socias trabajadoras o socias de trabajo de duración determinada por parte de la sociedad cooperativa pequeña serán los que se determinan en la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.
5. En los supuestos contemplados en los apartados precedentes, una vez cumplido el quinto



tzear, kooperatiba-sozietate txikiek Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzan jakinarazi eta ziurtatu beharko dute, erregelamenduz ezarritako moduan, behar bezala betetzen dituztela Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legean gai horretaz dauden eskakizunak.

4. artikulua. Hasierako derrigorrezko ekarpenak mugatzea

Kooperatiba-sozietate txikiek hasierako derrigorrezko ekarpenak exiji diezazkiekete besteren konturako langileei, sozietatean sartu ahal izateko iraupen mugagabeko bazkide langile edo lan-bazkide bezala edo iraupen mugatuko bazkide bezala. Nolanahi ere, bazkide mota horietako bakoitzaren ekarpenak ezingo dira handiagoak izan –parekoak gehienez ere– sozietatera azkena sartutako bazkideak, kasu bakoitzean dagokion motakoak, guztira eginiko derrigorrezko ekarpenak eta ekarpen horiei dagozkien eguneratzeak baino. Eta eguneratze horiek, berriz, ezingo dira handiagoak izan ekarpenak egin zirenez gero Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako kontsumo-prezioen indizeak gehituta ateratzen dena baino.

III. KAPITULUA KOOPERATIBA TXIKIKO ORGANOK

5. artikulua. Kooperatiba txikiko organoak

1. Kooperatiba-sozietate txikiko organoak Batzar Nagusia eta administrazio- eta ordezkaritza-organoa dira. Batzar Nagusia izango da organo garrantzitsuen, eta administrazio- eta ordezkaritza-organoa honelakoa izan daiteke: pertsona bakarrekoa –administratzaile bakarra–, pluripersonala –administratzaile solidarioak edo mankomunatuak– edo kolegiatua –Kontseilu Errektorea–.
2. Batzar Nagusia Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legean dago araututa lege honetan jaso gabeko gaietako dagokienez.
3. Administrazio- eta ordezkaritza-organoa kooperatiba-sozietate txikiko bazkide langileek edo lan-bazkideek osatuko dute beti, eta Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen xedapenak izango ditu arau, lege honetan jasotako berezitasunak kontuan hartuta.
4. Administrazio- eta ordezkaritza-organoa pertsona bakarrekoa bada –administratzaile bakarrek osatua– edo pluripersonala bada –administratzaile solidarioek edo mankomunatuak osatua–, eta artikuluko honen hurrengo paragrafoan jasotako kasua gertatzen bada, karguaren iraupena bost urtekoa izango da. Epe hori betetzean, berriro pertsona berak hautatuko dira edo izendapen berria egin beharko da.

año desde la fecha de su constitución, las sociedades cooperativas pequeñas deberán notificar y acreditar ante la Dirección de Economía Social, en la forma que reglamentariamente se determine, su regularización a las exigencias de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, sobre esta materia.

Artículo 4. Delimitación de las aportaciones obligatorias iniciales

Las aportaciones obligatorias iniciales que las sociedades cooperativas pequeñas pueden exigir a las personas trabajadoras por cuenta ajena, para incorporarse como personas socias trabajadoras o socias de trabajo de duración indefinida o personas socias de duración determinada, serán como máximo equivalentes, para cada una de estas clases de personas socias, al total de las aportaciones obligatorias efectuadas por la última socia o socio de la clase correspondiente incorporado a la entidad con las oportunas actualizaciones. En todo caso, estas actualizaciones no podrán ser superiores a las que resulten de la aplicación de los índices de precios al consumo publicados por el Instituto Nacional de Estadística desde que dichas aportaciones fueron realizadas.

CAPÍTULO III ÓRGANOS SOCIALES

Artículo 5. Órganos sociales

1. Los órganos sociales de la sociedad cooperativa pequeña son la Asamblea General de la cooperativa, que será el órgano social más importante, y el órgano de administración y representación, sea unipersonal –persona administradora única–, pluripersonal –personas administradoras solidarias o mancomunadas– o colegiado –Consejo Rector–.
2. La regulación de la Asamblea General, en lo no previsto por esta ley, es la establecida en la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.
3. El órgano de administración y representación estará siempre formado por personas socias trabajadoras o de trabajo de la sociedad cooperativa pequeña, y se regulará por las disposiciones establecidas por la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, con las especificidades previstas en esta ley.
4. Cuando se hubiera optado por un órgano de administración y representación unipersonal –persona administradora única– o pluripersonal –personas administradoras solidarias o mancomunadas– y en el supuesto regulado en el apartado siguiente de este artículo, el plazo de duración del cargo será de cinco años, y, transcurrido dicho periodo, deberá procederse a la reelección o a un nuevo nombramiento.



5. Kooperatiba-sozietate txikien administrazio- eta ordezkari-organoa Kontseilu Errektorea bada, bi pertsonak osatuko dute gutxienez kontseilua: haietako bat lehendakari izango da, eta bestea, idazkari.

6. Kooperatiba-sozietate txikien Kontseilu Errekto-reak estatutu sozialetan zehaztutako maiztasu-nez bildu beharko du. Hala eta guztiz ere, or-
gano horrek hiru hilean behin bildu beharko du, gutxienez.

Kontseilu Errektorearen erabakiak –legeak edo estatutuek hala agintzen dutelako gehiengo kualifikatuz hartu beharrekoak ez badira, behinik behin– behar bezala emandako botoen gehiengoz onartuko dira. Ez dira behar bezala emandako bototzat hartuko bilkuran dauden kideen abstentzioak.

Lehendakariaren botoak ahalmena izango du berdinketak erabakitzeko, baina ez Kontseilu Errektoreko kideak bi direnean, salbu kooperatiba-sozietate txikiaren estatutuetan kontrakoa ezartzen bada.

7. Artikulu honetako bosgarren paragrafoan jasotako kasua gertatuz gero, kooperatiba-sozietate txikiko Kontseilu Errektoreko idazkariak egin dezake Batzar Nagusia biltzeko deia, baldin eta lehendakariak ez badu hartarako deirik egin bazkide batzuek aurkeztutako deialdi-eskaera jaso eta hurrengo hogeitun egunetan –bazkide horiek gutxienez boto guztien ehuneko hogeiren ordezkari izanda–. Halakoetan, bestalde, aukera izango da lehendakariaren kontra erantzukizun-egintza aurkezteko.

IV. KAPITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOA

6. artikulua. Kapitalari eginiko ekarpenen dedukzioak

Estatutu sozialetan zilegi da derrigorrezko ekarpenen gaineko dedukzioak ezartzea, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 27 eta 28. artikuluetan jasotako kasuetan. Itzulkinen kapitalizazioak dedukzioetatik kanpo geratuko dira.

V. KAPITULUA EGOKITZEARI ETA DESEGITEARI BURUZKO XEDAPENAK

7. artikulua. Estatutu sozialak egokitzea

